

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



■ HERNANI ERRUGBIA

## Getxoren kontra, garaipen ederra

Euro Basque Rugby Challenge txapelketari dagokion partidua jokatu zuten hernaniarrek herenegun Getxoren kontra. Garaipen ederra lortu zuten, 27-43 irabazi zuten haien etxean, Faturan. ■

■ HERNANI JUANTXO EGAÑA 'HERNANIN IKUSIYAK'

## «Gure iragana ezagutu behar dugu, etorkizuna eraiki ahal izateko»

'Hernanin Ikusiyak' erakusketaren komisarioa da Juantxo Egaña; hura ikustera joateko animatu ditu hernaniarrak. Hilaren 11ra arte ikusi ahal izango da, Biterin.

### NOLATAN sortu zen proiektua?

Udalak proposatu zidan erakusketa bat egitea argazkigintza sortu zenetik, 1839an, eta 100 urteko epean, gutxi gora-behera, jasotako argazkiekin.

Nik dagoeneko ezagutzen nituen Hernaniko hainbat argazki, baina izugarria izan da Hernaniri buruz ikusi ahal izan dudana argazki zahar kopurua artxibo ezberdinetan, izan Euskal Herrian, baita hemendik kanpo ere: Madrilan, Parisen, Australian, Estatu Batuetan... Harrituta geratzen da!

### 100 urte, 100 argazkitan, beraz. Zer ikusi daiteke?

1875ean Karlitek Hernani bonbardeatu zutenean, udal-txean bonba erori eta hainbat hildako utzi zitueneko argazkiarekin hasten da erakusketa. Bi argazkilari zeuden Ermegildo Otero eta Valentin Marin; Hernanira gerturatu ziren leherketaren bihar-munean eta argazkia egin zuten. Argazki hori, grabatu moduan aldizkari ilustratu askotan erreproduzitu zen.

Hortik aurrera, Hernaniren historia da, argazkien bitartez. Bertako pertsonaiak daude, garrantzia nabarmena izan dutenak herrian: Eltzekondo, Ansorena, Txirrita, Elias Quejeta, Gabriel Celaya, Florentino Goikoetxea mugalaria... Eta nahiz eta erakusketan ez den azaltzen, nabarmenezkoa

da Enpar Pinedaren figura.

Irudi historikoak ere badaude, besteak beste, udal-txea berregin zenekoa, Epeleko Etxeberri, labaderoa, Gerra Zibilekoak, azkeneko tranbia... Hirigintza garapena ere ikusi daiteke, baita ekintza sozial asko ere, Euskal Jaiak, besteak beste.

Emakumeak ere paper garrantzitsua dauka erakusketa honetan, Zikuñagako papeleran ikusi ditzakegu, labaderoan... Hernaniko bizitzaren alderdi askotan ateratzen da eta oso ondo dago islatuta.

Horrekin guztiarekin sortzen da Hernaniren historia fotografikoa.

Horrez gain, argazkigintzatik aldendu gabe, badaude bitrina batzuk beste material batzuekin. Bertan aurkitu dezakegu, adibidez, Novedades aldizkaria.

### Urtebete luze eman duzu horretan. Nola izan da prozesua?

Inguruan daukadan jendearekin eta ezagutzen ditudan artxiboetan 'garbiketa' moduko bat egiten hasten zara; sartu eta ea zer topatzen duzun Hernaniren inguruan.

### Argazki hauetatik guztietatik zein hautatuko zenuke?

Oso ikusia badago ere, 1875ean udaletxea suntsitu zuen bolbora-xehea lehertu zenekoa oso txundigarria da, oso go-gorra.



Juantxo Egaña Biterin, erakusketa hasten duen irudiarekin.

### Inoiz ikusi ez diren argazkiak daudela esan duzue. Nondik lortu dituzue?

Florentino Goikoetxea mugalariarena oso irudi kuriosoa da. Bera mugalaria zen eta momentu batean muga pasatzen ari zela, soldadu alemaniarrek harrapatu, tirokatu eta atxilotu egin zuten. Iparraldean ospitalean zegoela, Frantziako erresistentziako kide batzuk, nazien mozorroarekin, ospitaletik atera eta eramane egin zuten. Orduan, Bigarren Mundu Gerra bukatuta eta oraindik zauritua zegoela, muga pasatzeko laguntza jaso zuen Australiako hegazkinlari batek argazki bat egin zion Ziburun, Comete Sareko beste kide batzuekin osatzen ari zenean. Eta hori da daukagun irudia.

Hegazkinlariak Australiara eramane zituen irudi hauek, eta bera hil zenean, familiak bere dokumentu guztiak Gerra Memoriaren inguruko Artxibo batean gorde zituen, Australiako gobernuaren eskutan, eta handik erreskatatu dugu.

Elizaren atariaren argazkia, Frantziako bidaiari batek egin, Parisen topatu dugu, Frantziako Ondarearen artxibo batean.

Beste batzuk familietako artxiboetan zeuden, eta noski, nola ez, badaude argazki batzuk Hernaniko Udal Artxiboak direnak.

### Erakusketa oraindik ikusi ez duenari, zergatik gomendatuko zenioke ikustea?

Ikusteko nolokoa zen Hernani duela 100 urte, eta Gerra Zibilean, Gerra Karlistetan, lanarekin, uholdeekin, hirigintza-aldaketekin... gertatu dena jakiteko.

Iraganak orainerako balio du, eta garrantzitsua da gure etorkizunerako. Gure iragana ezagutu behar dugu, etorkizuna eraiki ahal izateko. Eduki duguna ez dugu ahaztu behar.

Horretarako erakundeak daude, eta uste dut Hernaniko udalak ahalegin hori egin duela erakusketa hau antolatzeko. ■

■ HERNANI PENSIONISTAK

### Kalera, berriro ere

Udara pasata, kaleetara buelta egingo dute Hernaniko jubilatu eta pensionistek. Astelehenero eguerdiko 12:00etan elkartuko dira Plazan. Gaur izango dute aurreneko astelehena. ■

■ HERNANI BITERI

### Izena emateko aukera, gaurtik

Gaurtik ostiralera bitarte izango da aukera Biteriko ikastaroetan izena emateko. Harreran egin beharko da, bulegoko ordutegian. Zozketa, aldiz, hurrengo astelehenean, gaur zortzi izango da, eguerdiko 12:00etan. ■

■ HERNANI GOIZ EGUZKI

### Entseguak, gaurtik

Udarako oporrak pasata, gaur hasiko ditu ohiko entsaioak Goiz Eguzki abesbatzak. Arratsaldeko 17:30etan hasita izango da, Goiz Eguzkin. ■

■ HERNANI JUDO

### Denboraldi berria, judokek

Gaur hasiko dute denboraldi berria judoko kadete, junior eta seniorrek. Txikienek, aldiz, hilaren 16an izango dute aurreneko klasea. Haiekin hasi nahi dutenek, orain dute aukera izena emateko: [judohermani@gmail.com](mailto:judohermani@gmail.com) edo 658 881 112. 6 urte baino gehiago izan behar dira. ■



**YABEN ENGLISH SCHOOL**  
HERNANI  
ikastegia

2019 / 20 IKASTURTEA

**MATRIKULA IREKITA**  
Irailaren 2tik 10era  
Orduetgia: 10.00 - 13.00 eta 17.00 - 20.00

YABEN: Andreakale 60 943.331763  
YABEN K&S: Perkaingegi 13 943.331763

Cambridge English Language Assessment

**KET**  
Nahiane Agirre  
Narrea Arrospide  
Ane Ayeztaran  
Manex Ayeztaran  
Salvo Gonzalez  
Lidia Irazu  
Aritz Liceaga

**PET**  
Naia Aguado  
Enara Ortega  
Martin Amundarain  
Irati Lerchundi  
Narrea Saenz  
Peru Roi

Exam Preparation Centre

<b>FIRST</b> Jon Garmendia Yanis Aguado Xabier Garcia Eneko Garmendia Henar Goya Enara Lopez Andoni Sudupe Oier Elzomendi Andrea Ernasti	<b>ADVANCED</b> Maialen Tolosa Ander Leiza Siria Burrixa Hegoi Urretabizkaia Aitor Pagola Thais Zambrano Sivia Aguirre Enara Larburu Kepa Sarriudo Mikel Urzulegi
---	---

Escolak irailaren 10ean hasiko dira

www.academiayaben.com

**DORRONSORO**  
OINDEGIA

Ogi egin berria beti zure eskura

**Obradore nagusia Akarregin**  
Akarregi poligonoa 14A-2  
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA  
Orduetgia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00  
Jaiegunetan: 7:00-14:30

**Denda herriko kaxkoan**  
Lizeaga kalea 4  
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN  
Orduetgia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00  
Jaiegunetan: 7:00-14:00

**GAUR** Egonkortera egingo du eguraldiak gaur. Egunaren hasieran lainotuta egongo da, baina ostarteak irekitzen joango dira, eta arratsaldean eguzkitsu egongo da. Tenperaturak, berdintsu: **Min.14° / Max.20°**

**BIHAR** Eguraldi eguzkitsu izango da. Eguna lainoekin hasiko bada ere, goizean garbitzera egingo du, eta arratsaldeko zerua garbi geratuko da. Tenperatura maximoek gora egingo dute. **Min.13° / Max.22°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

## HERNANI ERREMONTEKO BURUZ BURUKO KUTXABANK TXAPELKETA

# Urrizak lortu du aurtengo finalerako aurreneko txartela

Barrenetxea IV hernaniarrak ziurtatuta dauka bigarren txartela lortzeko borrokan izango dela larunbatean, Endika edo Ansa II izango du aurkari.

ERREMONTEKO Buruz Buruko Kutxabank Txapelketa pixkanaka bukaerara iristen ari da. Herenegun jokatu zuten finalerdietako ligaxkako azkenaurreko partidua Urriza eta Barrenetxea IVak eta dagoeneko badakigu Urriza finalean egongo dela.

Ezustean harrapatu eta irabazteko gogoz joan zen Endika Barrenetxea hernaniarra partidura, baina ez zuen irabazterik lortu. 30-20 galdu zuen Urriza faboritoaren kontra.

### Jokoaren aldaketa

Aurretik adierazi zuen moduan, jokoan aldaketa egin zuen Barrenetxea IVak, baina

Larunbateko finalerditik aterako da bigarren finalista, Urrizaren kontra finala jokatuko duena.

horrek ez zuen markagailua aldarazi. Urrizak partidu ederra egin zuen, eta hernaniarren gainetik jarri zen. Pelotakadetan ez zuen hutsik ere egin, eta izan zituen akats bakarrak sakeetan izan zituen.

Barrenetxea, aldiz, saiatu zen, eta bereziki aldaketa egin zuen sakeetan, eta horri esker, lau tanto lortu zituen hernaniarrak.

### Larunbateko finalerdian, Barrenetxea IV

Dena den, Barrenetxea IV hernaniarra ez dago finaletik kanpo, oraindik. Izan ere, ziurtatuta dauka larunbateko finalerdietan izango dela. Oraindik, ordea, ez daki nor izango duen aurkari, Endika ala Ansa II. Orduan lehiatuko dute finalerako bigarren txartela lortzeko.

### Final handia, irailaren 14an

Larunbateko finalerditik aterako da bigarren finalista, Urrizaren kontra irailaren 14an finala jokatuko duena, hain zuzen. ||

## HERNANI LATSUNBEBERRI-MARIELUTSEKO FESTAK



Auzoko patata tortiliarik onena dastatzeko aukera izan zen; saridunek, aldiz, afaria irabazi zuten.

### Jendetza, festa agurtzeko

Asteburu osoko festarekin gozatu ederra hartuta, agur esan zioten atzo Latsunbeberri eta Marielutseko auzotarrek aurtengo festei. Ez zuten nolana egin, gainera. Patata tortilla lehiaketa egin zuten, bertso-larien erritmora banatu zituzten sariak, eta ondoren, festa borobiltzeko, inguruko hamaika sagardo dastatzeko aukera izan zen. Iturritxo Elkartearen esku pelota txapelketaren sariak ere banatu zituzten. ||



Iturritxo Elkartearen VII. esku pelota txapelketa jokatu zuten.

## ASTIGARRAGA AEK EUSKALTEGIA

### Argazki erakusketa gaurtik, tabernetan

Ikasturte berria hasi aurretik, aurrekoa gogoratu ohi du Astigarragako AEK euskaltegiak, eta hala egingo du aurten ere. Gaur hasi eta hilaren 27a bitarte argazki erakusketa egingo du, aurreko urteko argazkiekin. Ibai-Lur, Ikatza, Sagartxo, Txiki eta Zipotzan ikusi ahal izango dira. Horrez gain, gaurtik ikasturte berrian matrikula egin daiteke: 607 610 687 edo [astigarraga@aec.eus](mailto:astigarraga@aec.eus). ||

## HERNANI ASFALTATZE-LANAK

### Portu-Osinaga zatiari segida, gaurtik

Udalak asfaltatze-lanekin jarraituko du aste honetan ere. Gaur, bihar eta etzi Portu-Osinaga bidea asfaltatzen jarraituko dute, baita hilaren 9 eta 10ean ere. Eta ostegunetik aurrera, Erroilaburu-Telleri Zahar bidea konpontzeari ekingo diote, hilaren 13ra arte. ||

## HERNANI DOINU ZALE MUSIKA ESKOLA

### Ikasturte hasiera gaur, Doinu Zalek

Gaur hasiko dute ikasturte berria Doinu Zale Musika Eskolako ikasleek. Horrez gain, Ozenki abesbatza ere entsaiatzen hasiko da; astearte eta ostegunetan egingo ditu. Nahi duena animatu daiteke. ||

## OKERRAK ZUZEN

### 2007tik aurrerakoak, Pelota Eskolan

Gaurtik hilaren 30era bitarte eman ahal izango dute izena Pelota Eskolan gaztetxoek, atzoko Kronikak jakinarazi zuen bezala. Bertan zioen 2007ra arte jaiotakoek eman ahal izango zutela izena, eta ez da hala. Alderantziz da: 2007tik aurrera jaiotakoak apuntatu ahal izango dira. Kiroldegiko frontoira joan beharko da, horretarako; astelehenetik ostegunera, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara. Rufino Rekalderekin hitz egin behar da. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

### ANTONIO ERASUN SALA

(Ixi gure lankidearen aita)

**aec**

Besarkada estua familiari.

**HERNANIALDEKO AEK**

Hernanin, 2019ko irailaren 2an



### II. URTEURRENA Carlos Migliaccio Martinez

2017ko irailaren 2an hil zen, 84 urterekin

-Goian Bego-

Beti gogoan zaitugu

**ETXEKOAK**

Hernanin, 2019ko irailaren 2an



## IRAGARKI MERKEAK

**LOGIKALINE** enpresak HIRU TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

**LOGIKALINE** enpresak INFORMATIKO-PROGRAMADORE lanpostua bete behar du. Lana Abaltzisketan egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**